

Dokumentu honetan app.hazia.net webaren bidez alergeno kudeaketaren kontratatutako zerbitzuaren kontratu baldintzak ezartzen dira. app.hazia.net webgunearen jabetza NEREA CAVERO RUIZ- LAURA MOYA TORVISCO, C.B.-rena da, hemendik haurrera HAZIA izendatuko dena. app.hazia.net webgunean eskaintzen diren zerbitzuen kontratazioa (harpidetza), dokumentu honen onarpena darama, non kontratatzailea adierazten du:

- a. Hemen idatzitakoa irakurri, ulertu eta onartzen duela.
- b. Kontratazeko gaitasuna duena dela.
- c. Hemen idatzitako betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Hemen adierazitako baldintzak urte bateko balioa dute kontratazioa (harpidetza) egiten denetik aurrera, eta HAZIAren app.hazia.net webgunearen bitartez egindako kontratazio (harpidetza) guztiei aplikagarriak dira.

HAZIAk baldintza hauen moldaketaren eskubidea duela adierazten du, moldaketaren aurretik kontratatutako zerbitzuei eraginik sortu barik.

1. Helburua

Kontratu honen helburua erabiltzailearen eta HAZIAren arteko salmentako erlazioa zehaztea du helburu, erabiltzaileak kontratazio (harpidetza) prozesuan bere onarpena ematen duen momentuan.

2. Aplikazio-eremua

Kontratazio Baldintza Orokor hauek app.hazia.net webgunean eskeinitako doako naiz ordaintzeko zerbitzu guztiei aplikagarriak dira.

3. Kontratazio prozesua

HAZIAk eskeinitako zerbitzuak erabiltzeko, app.hazia.net webgunearen bitartez harpidetza egin behar du eta baita erabiltzaile kontu bat sortu. Honexegaitik, erabiltzaileak bere datu pertsonalak eta ordainketakoak aske eta bere kabuz jakinarazi behar dizkigu.

Erabiltzaileak baliozko posta helbide eta pasahitz bat aukeratuko ditu, erabilera modu arduratsuan egingo duela, eta ez duela beste hirugarren bati eskeinitako adieraziz. Sarrerako datuak galdu edo lapurtutak gauzatzen badira, edota baimenduta ez dagoen pertsona batek app.hazia.net webguneako bere kontuan sartu badaideke, erabiltzailea HAZIAri komunikatzea behar du, kontua jarraian blokeatu ahal izateko.

Kontratazio (harpidetza) bakoitza establezimendu bakar batentzat baliozkoa da, kontratazio (harpidetza) bera ezin daiteke erabili establezimendu desberdinetan, nahiz eta establezimendu horiek izen soziala, aktibitatea edo produktu berdinak badituzte ere.

Doako bertsioan kontratazioa (harpidetza) 2 hilabetetako iraupena izango du, ordainketa bertsioan urte batekoa izango da. Epe hau gaindituta, erabiltzailea kontratua berritzu beharko du edota ordainketa bertsioa kontratatu, honela ez egitekotan kontua suspendituko da kontratazio edo berriztapena egin arte.

4. Prezioa eta fakturazioa

Kontratazioan (harpidetzan) emandako prezioak B.E.Z.A. barne dute, momentuan aplikagarria den araudiaren arabera. Fakturazioa NEREA CAVERO RUIZ - LAURA MOYA TORVISCO C.B., Identifikazio Fiskal Zenbakia: E95777629 eta Zerga-egoitza: Zuataurre, 9 Galdakao (Bizkaia) enpresaren izenean egingo da.

5. Konfidetzialtasuna

app.hazia.net webgunean sartutako produktuen osagaien datuak edota sortutako plater eta produktuena erabiltzailearenak dira, honegaitik HAZIAK ez ditu inoiz eskura edukiko erabiltzailea ez bagaitu idatziz baimentzen.

6. Erantzunkizunak

HAZIAK ez da arduratzen erabiltzailearen plater edota produktuen alergenoen adierazpenean akatsik aurkitzen badira manipulazio ez zuzenak, adierazitak ez dauden gurutzatutako kutsadurak, osagaiak ez eguneratzeak, plater edo produktuen osagaien aldaketak, akatsak datuak sartzerakoan eta beste zenbait arrazoiengaitik gertatzen badira, emandako zerbitzuak eta aplikazioaren funtsionamendukoak ez ba dira.

7. Kontratuaren iraupena

Kontratutako zerbitzuaren (harpidetza) iraupena, app.hazia.net webgune urte batez erabiltzeko eskubidea ematen du, epe hau gaindituta berriztatu beharko da ordainketa berri bat eginez. Kontua ez balitzateke berritzu, erabiltzaile guztien sarrerak baliogabetuko dira. Eta baliogabetze honetatik beste urte bat pasa eta gero kontuaren datu guztiak ezabatuko dira kontua ez bada berritzen.

8. Pribatutasun politika

Datuen Babespenaren informazio guztia gure [Pribatutasun politikan](#) eskuragarri duzu.